

## **Euskal AEn bizi-itxaropen handia eta hilkortasun tasa txikiak Europaren aldean, eta osasun-gastu txikiagoarekin**

***Europako mailetan gabiltza biztanleriaren ohitura ez-osasungarrietan, zuzkidura eta finantzaketa publikoan, baina gehiagotan joaten gara medikuarengana***

Datu hauek eta beste batzuk agertzen dira "Euskal AEko 2008ko Osasunaren Ikuspegian" zeina baita sintesi eragiketa estatistiko baten emaitza, Eustatek egina Osasun eta Kontsumo saileko organo estatistikoarekin batera.

Argitalpen honen helburua osasunaren gainera informazioa bildu eta sintetizatzea izan da: Faktore determinatzaileak (ingurumena, jokaerak), biztanleriak hautemandako eta adierazitako osasun-egoera, osasun-sistema (prebentziozko praktikak, giza baliabideak, egiturazkoak eta beren erabilera), eta alderatzeko adierazleak ematea, ingurukoekiko nola gabiltzan jakiteko.


Adierazle demografikoek esaten digute nolakoa izango den osasun-arretaren eskaria, potentziala eta etorkizunekoa: Euskal AEko 65 urte eta gehiagoko biztanleria (%18,7) 27-EBko (%17) handien artean dago; haur-proportzioa baxuen artean (%12,6, 27-EBn %15,7); proiektzioek biztanleria apalki hazten ari dela diote.

EBn bezalaxe, emakumeen bizi-itxaropena (84,3 urte) gizonezkoenaren (77,2) gainetik dago; bietan EBko bataz bestekoen gainetik gaude (82 urte emakumeak, 75,8 gizonak) eta Europako altuenen artean.

Euskal AEko hilkortasun-tasa (adinaren arabera biztanleri egituraren eragina minimizatzeko estandarizatua) 100.000 biztanleko 506 pertsona dira; 27-EBkoaren (100.000ko 641) azpitik dago, eta gizonen hilkortasun-tasa (687) dezente handiagoa da emakumeena (363) baino.

Euskal AEn aurreneko heriotza kausa tumoreak dira (100.000ko 172); gertu (137), zirkulazio-sistemaren gaixotasunak daude; azken hauen intzidentzia txikiagoa da 27-EBkoa (246 heriotza) baino, hor lehenengo kausa baitira.

### Hilkortasun-tasa estandarizatuaren bilakaera (100.000 biztanleko)



Iturria: Eurostat eta Eustat. Osasunaren ikuspegia

Ohitura ez-osasungarrien artean, gizonek alkohol gehiago edaten dute emakumeek baino. Euskal AEn azken urtean alkohol edandako gizonak %91 dira (Erresuma Batuan, Herbehereetan eta Suedian bezalatsu), eta emakumeak %75 (Suedian, Erresuma Batuan eta Alemanian baino gutxiago). Genero-aldea txikiagoa da tabakoari begiratzen bazaio; gizonen %29 eta emakumeen %21.

| Osasunaren adierazleak |                                                 |                                               |                                                              |                                                                      |                                                           |                                               |                                              |                                                    |
|------------------------|-------------------------------------------------|-----------------------------------------------|--------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------|-----------------------------------------------|----------------------------------------------|----------------------------------------------------|
|                        | 65 urteko eta<br>gehiagoko<br>biztanleak<br>(%) | Emakumeen<br>bizi-<br>-itxaropena<br>(Urteak) | Hilkortasun-tasa<br>estandarizatu<br>(100,000<br>biztanleko) | Bataz besteko<br>pertsonala<br>oheko<br>akutuentzako<br>ospitaleetan | Ohe betetze-<br>-tasa<br>akutuentzako<br>ospitaleetan (%) | Kontsulta<br>medikuak<br>biztanleko<br>(Kop.) | Ospitale<br>altak<br>(100.000<br>biztanleko) | Gastu<br>publikoa<br>gastu<br>osoaren<br>aldea (%) |
| Alemania               | 20,1                                            | 82,7                                          | 585                                                          | 2,1                                                                  | 76,3                                                      | 7,5                                           | 22041                                        | 76,9                                               |
| Frantzia               | 16,3                                            | 84,4                                          | 526                                                          | 1,7                                                                  | 73,7                                                      | :                                             | 17156                                        | 79                                                 |
| Grezia                 | 18,7                                            | 81,8                                          | 623                                                          | 2,6                                                                  | 75                                                        | :                                             | :                                            | 60,3                                               |
| Italia                 | 20,1                                            | 84,2                                          | 517                                                          | 3,2                                                                  | 77,8                                                      | 7                                             | 15309                                        | 76,5                                               |
| Herbeereak             | 14,8                                            | 82,5                                          | 572                                                          | 3,5                                                                  | 63,9                                                      | 5,7                                           | 10931                                        | :                                                  |
| Polonia                | 13,5                                            | 79,8                                          | 836                                                          | :                                                                    | 77                                                        | 6,8                                           | 18425                                        | 70,8                                               |
| Erresuma Batua         | 16,1                                            | 81,7                                          | 599                                                          | :                                                                    | 82,4                                                      | 5                                             | 13541                                        | 81,7                                               |
| Suedia                 | 17,5                                            | 83,1                                          | 541                                                          | :                                                                    | :                                                         | 2,8                                           | :                                            | 81,7                                               |
| Espainia               | 16,6                                            | 84,3                                          | 534                                                          | 3,8                                                                  | 79,1                                                      | 8,1                                           | 10660                                        | 71,8                                               |
| Euskal AE              | 18,7                                            | 84,3                                          | 506                                                          | 3,4                                                                  | 77,2                                                      | 8,1                                           | 13887                                        | 72,3                                               |
| EU 27                  | 17                                              | 82                                            | 641                                                          | :                                                                    | :                                                         | :                                             | :                                            | :                                                  |

: Ez dago daturik

Iturriak: Eurostat, ELGE, Eustat y Osasun eta kontsumo Saila

Obesitateak osasun-arazo ugari sortzen ditu. Euskal AEn obesoak dira gizonen %13 eta emakumeen %12; azken urteetan okerrera egin du, 27-EBKo estatu dezentetan bezalaxe. EBn biztanleriaren %15-20 da obeso; Alemanian eta Erresuma Batuan ehuneko horien gainera dabilta.

Euskal AEn ospitaleko langileen ratioa 3,4 da ospitale-oheko, ELGEko estatu gehienetan (2-4 pertsona) bezalaxe. Euskal AEko akutuen ospitaleetako ohe erabilgarrien betetze-ehunekoa %77 da, inguruko herrialdeetan bezalatsu.

Euskal AEko biztanleek 8,1 kontsulta mediko egiten dituzte urtean, eta horrek kokatzen gaitu, ELGEren (7 kontsulta) barruan, medikuarengana sarrien joaten direnen artean.

Bestela da ospitale-arretan: 100.000 biztanleko 13.887 alta dauzkagu Euskal AEn, adierazle honetan balio baxuenak dauzkatenen artean –Herbehereekin, Espainiarekin eta Erresuma Batuekin batera- etxeko arretaren gaineko proposamenen eta zientzi medikoaren aurrerapenen ondorioz. Kausen artean, zirkulazio-sistemaren gaixotasunak dira ospitaleratze-arrazoi nagusia, bai Euskal AEn, bai 27-EBn.

Euskal AEko Osasunaren kontuak adierazten du ezen 2000-2006 urteen artean osasun gastu osoaren hazkuntza-tasa bat az bestekoa %8,1 izan zela, BPGren %6,9 2006an. Per capita osasun gastua 2.446\$ izan zen erosteko paritatean, eta ELGEn 2.759\$ bat az beste; azpitik gaude beraz, baina artatutako biztanleriaren osasun-adierazleak –bizi-itzaropena, hilkortasuna- hobeak dira 27-EBn baino.

Euskal AEn gastu publikoa guztirakoaren %72,3 izan zen; inguruko herrialdeetan %71-79 artean dabilta.

---

**Argibide gehiago nahi izanez gero:**

*Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.*

*Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)*

*Harremanetarako pertsona: Marta de la Torre Fernández*

*Tel:+34-945-01 75 48 Faxe:+34-945-01 75 01*

***Hona hemen non ikus daitekeen txosten osoa:***

**[Osasunaren ikuspegia 2008](#)**